Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko azaroaren 5a, asteartea — 213 — Martes, a 5 de noviembre de 2024

LEGAZPIKO UDALA

Iragarkia

Pertsonaleko gaietan dauzkan ahalmenak erabiliz, 2024ko urriaren 28an egindako Gobernu Batzordeak honako hau erabaki du:

1. Oposizio-lehiaketa librearen bidez Legazpiko Udaleko funtzionarioen plantillako hiru (3) administrari plaza jabetzan hornitzeko hautaketa-prozesua deitzea.

2. Deialdia arautuko duten eta erabaki honi erantsita doazkion oinarriak onartzea.

3. Deialdi honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* eta www.legazpi.eus orrialdean argitara ematea.

Erabaki honek arduralaritza-bideak agortzen ditu eta horren aurka argitarapena egiten den hurrengo egunetik eta bi hilabeteko epean Donostian egoitza duen Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau publikatu eta biharamunetik hasita.

Legazpi, 2024ko urriaren 29a.—Eric Galvez Alvarez, alkatea. (7883)

Oinarriak, Legazpiko Udaleko langileen plantillan hutsik dauden hiru (3) administrari-lanpostu lehiaketa-oposizio askez betetzeko deialdia arautuko dutenak.

Lehenengoa. Deialdiaren helburua.

Deialdi honen xedea da, lehiaketa-oposizio askearen sistemaren bidez, udal honetako funtzionarioen plantillan hutsik dauden hiru (3) administrari-lanpostu betetzea, karrerako funtzionario gisa. Lanpostu horiek 2021eko eta 2023ko lan-eskaintza publikoei dagozkie.

Lanpostuak Administrazio Orokorreko Eskalan daude integratuta, Administrazio Orokorreko Administrarien Azpieskalan, Lanbide-sailkapeneko C Taldean, C1 Azpitaldean, eta indarrean dagoen lanpostuen zerrendako 10103 eta 30104 kodeak dituzte.

Eskatzen den berariazko titulazioa: Batxilergoko titulua edo titulu teknikoa.

Hautaketa-sistema praktikaldiarekin osatuko da; praktikaldia hautaketa-prozesuaren beste fase bat izango da.

Bigarrena. Funtzioak.

Bere lanbide-kategoriari dagozkion eginkizunak beteko ditu. Hona hemen horietako batzuk:

— Administrazio-lanak egitea ekipo, programa eta aplikazio informatikoak eta bulegoko beste material eta ekipo batzuk erabiliz.

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

Anuncio

De acuerdo a las competencias que le corresponden en materia de personal, la Junta de Gobierno Local celebrada el 28 de octubre de 2024, ha resuelto:

1. Convocar un proceso de selección para la provisión de tres (3) plazas de Administrativo/a de la plantilla del personal funcionario del Ayuntamiento de Legazpi, mediante el sistema de concurso-oposición libre.

2. Aprobar las bases que han de regir la convocatoria, que se adjuntan al presente acuerdo.

3. Ordenar la publicación de la Bases de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, *Boletín Oficial del Estado* y en la página www.legazpi.eus.

Este acto agota la vía administrativa y contra el mismo se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo sito en San Sebastian en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente de su publicación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, se podrá interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de su publicación.

Legazpi, a 29 de octubre de 2024.—El alcalde, Eric Galvez Alvarez. (7883)

Bases que han de regir la convocatoria para la provisión, mediante el sistema de concurso-oposición libre de tres (3) plazas de administrativo/a, vacantes en la plantilla de personal del Ayuntamiento de Legazpi.

Primera. Objeto de la convocatoria.

Es objeto de la presente convocatoria la provisión, como funcionario o funcionaria de carrera, mediante el sistema de concurso-oposición libre, de tres (3) plazas de Administrativo/a, vacantes en la plantilla de personal funcionario de este Ayuntamiento y correspondientes a las Ofertas de Empleo Público de 2021 y 2023.

Las plazas se encuentran integradas en la Escala de Administración General, Subescala Administrativo/a de Administración General, Grupo de Clasificación Profesional C, Subgrupo C1, códigos 10103 y 30104 de la RPT vigente.

Titulación específica exigida: Título de Bachiller o Técnico.

El sistema selectivo se complementará, como una fase más del proceso selectivo, con un período de prácticas.

Segunda. Funciones.

Las funciones a desarrollar serán las correspondientes al ámbito de su categoría profesional. Siendo algunas de ellas, a título enunciativo las siguientes:

— Realizar tareas administrativas que conlleven la utilización de equipos, programas y aplicaciones informáticas y otros materiales y equipos de oficina.

EK\CV GAO-I-2024-07883

— Espediente administratiboak izapidetzea eta haien jarraipena egitea.

— Hainbat dokumentazio mota artxibatzea eta horien kontrola eta jarraipena egitea.

— Datu-baseak eta erregistroak eguneratzea eta tratatzea.

— Dokumentuak, estatistikak, memoriak, txostenak eta abar egitea, zehaztutako jarraibideen eta prozeduren arabera.

— Udalaren antolaketa osagarria osatzen duten kide anitzeko organoen idazkaritza-lanak egitea.

— Herritarrei arreta eta informazioa ematea aurrez-aurre eta telematikoki.

— Arloko teknikariei eta/edo hierarkian gorago daudenei laguntzea, hala eskatzen zaionean (agenda eraman, bilaketak egin, proiektuak/memoriak/txostenak egiten lagundu... etab.).

— Administrazio-laguntza ematea, zeharka, dagoen Arloko langileei.

— Herritarrei arreta emateko zerbitzuan errefortzuak edo ordezkapenak egitea, nagusiek hala eskatzen diotenean, zerbitzuaren beharren arabera.

— Ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren eta hala agintzen zaizkion beste zeregin guztiak egitea, lanpostuaren sailkapenaren arabera.

Hirugarrena. Araudi aplikagarria.

Lanpostua jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdian araudi hauek aplikatuko dira:

— Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

— 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriak ezartzen dituena.

— 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.

— 896/1991 Errege-dekretua, ekainaren 7koa, Toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituena.

— Osagarri gisa, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden langileen sarrerari eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostu-hornikuntzari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua.

— 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

— 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

— 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakitemaila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzen eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dituena.

— 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

— 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena.

— 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoa.

— 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako legearen testu bategina onartzen duena.

— 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Izaera Pertsonaleko datuen babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.

— Tramitar expedientes administrativos y realizar su seguimiento.

— Archivar y realizar el control y seguimiento de diferente tipo de documentación.

— Actualizar y tratar bases de datos y registros.

— Elaborar documentos, estadísticas, memorias, informes, etc. de acuerdo con las pautas y procedimientos definidos.

— Realizar funciones de secretaría de los órganos colegiados que conforman la organización complementaria del Ayuntamiento.

— Atender e informar al público de forma presencial y telemática.

— Colaborar con el personal técnico y/o superior jerárquico del área, cuando así se le requiera (llevar agenda, realizar búsquedas, apoyar en proyectos/memorias/informes, etc.).

— Dar apoyo administrativo de forma transversal al personal del Área en que se encuentra.

— Realizar refuerzos o sustituciones en el Servicio de atención a la ciudadanía, cuando así se le requiera por sus superiores, en base a las necesidades del servicio.

— Realizar cualesquiera otras tareas que sean necesarias para la consecución de los objetivos fijados y que así se le encomienden, de acuerdo con la clasificación de su puesto de trabajo.

Tercera. Normativa aplicable.

Serán de aplicación a la convocatoria del proceso selectivo para la provisión en propiedad de la plaza la siguiente normativa:

— Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleo Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre.

— Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública.

— Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

— Real Decreto 896/1991 de 7 de junio por el que se establecen las reglas básicas y programas mínimos a que debe ajustarse el procedimiento de selección del personal funcionario de la Administración Local.

— Con carácter supletorio, el Reglamento General de Ingreso del Personal al servicio de la Administración General del Estado y Provisión de Puestos de Trabajo y Promoción Profesional de los funcionarios civiles de la Administración General del Estado, aprobado por Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo.

— Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

— Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco.

— Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de Títulos y Certificados Acreditativos de conocimientos de euskera y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

— Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

— Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de Mujeres y Hombres.

— Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

— Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

EK\CV GAO-I-2024-07883

— 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, jabetza publikoko datu pertsonaletarako fitxategiena eta dokumentuak babesteko euskal bulegoa sortzearena.

— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

— 781/1986 Legegintzako Errege-dekretua, apirilaren 18koa, Toki-araubidearen gaietan indarreko Legezko Xedapenen testu bateratua onartu zuena.

— 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

— Oinarri arautzaile hauek.

Laugarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Ondoko hauek dira onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, bete beharreko baldintzak:

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzekoa den beste estatu batekoa, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean definituta dagoen moduan.

b) Halaber, parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea duten pertsonen ezkontideek, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, haien kontura bizi badira (5/2015 Legegintzako Errege-dekretuaren 57. artikulua).

c) Aldez aurreko eskaera egitea.

d) Lanpostuari dagozkion ohiko lanak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea.

e) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

f) Diziplinako espediente bidez autonomia-erkidegoetako edozein administrazio publikotako edo konstituzio- edo estatutu-organismotako zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaikuntza absolutua edo berezia ez izatea, funtzionarioen kidegoetan edo eskaletan sartzeko.

g) Beste Estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere Estatuan baldintza berberetan enplegu publikorako sarbidea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zehapen baliokiderik ez izatea.

h) Batxilergoko titulua edo titulu teknikoa izatea edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea, edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean titulazio horiek lortzeko moduan egotea.

i) Titulazioa atzerrian lortu duten izangaiek dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria dutela egiaztatu beharko dute.

j) Administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea; nolanahi ere, kargu publiko bat edo jarduera pribatu bateraezin bat betetzen dutenek aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubidea baliatu ahal izango dute.

k) Hautaketa-prozesuan 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea izatea egiaztatzea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea. Eskakizun hori hautaketa-prozesu honetako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den egunean bete beharko da.

— Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de carácter personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Documentos.

— Ley 7/1985, de 2 de abril de Bases del Régimen Local.

— Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen local, aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril.

— Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

— Las presentes bases reguladoras.

Cuarta. Requisitos de las personas aspirantes.

Para ser admitido o admitida, y, en su caso, tomar parte en el procedimiento selectivo serán requisitos necesarios:

a) Tener la nacionalidad española o la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea o de algún otro Estado en que, en virtud de tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras en los términos en que esta se halla definida en el Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea.

b) También podrán participar el cónyuge de las personas nacionales de los Estados miembros de la Unión Europa, siempre que no esté separado de Derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de Derecho, sean estos descendientes menores de 21 años o mayores de dicha edad y vivan a sus expensas (artículo 57 RDL 5/2015).

c) Formular solicitud previa.

d) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.

e) Tener cumplidos dieciséis años y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa.

f) No haber sido separado o separada mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los Organismos Constitucionales o Estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso a cuerpos o escalas de funcionarios o funcionarias.

g) En caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o inhabilitada o en situación equivalente ni haber sido sometido/a a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos, el acceso al empleo público.

h) Estar en posesión o haber abonado los derechos para la obtención del título de Bachiller o Técnico, o estar en condiciones de obtener dichas titulaciones en la fecha en que termine el plazo de presentación de instancias.

i) Las personas aspirantes con titulaciones obtenidas en el extranjero deberán acreditar que están en posesión de la correspondiente convalidación o de la credencial que acredite, en su caso, la homologación.

j) No hallarse incurso/a en causa legal de incapacidad o incompatibilidad, previstos en la normativa vigente en materia de incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas, sin perjuicio, para quienes ocupan ya un cargo público o una actividad privada incompatible, de ejercitar el derecho de opción a que se refieren las citadas normas legales.

k) Acreditar dentro del proceso selectivo estar en posesión del Perfil Lingüístico 3 o equivalente, o superar las pruebas de acreditación que al efecto se convoquen durante este proceso selectivo. La fecha en que deberá cumplirse este requisito será la fecha en que se realice la prueba de acreditación de perfil de este proceso selectivo.

EK\CV GAO-I-2024-07883

Hautaketa-prozesuan parte hartzea borondatezkoa da eta, hala badagokio, proba psikoteknikoak egiteko baimena eman beharko da. Proba horien emaitza balorazio-faktore gisa erabiltzea onartuko da, oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera.

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek eskabidean berariaz baimenduko dute, kontrakorik adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta helbururako tratatzea.

Bosgarrena. Eskabideak.

Dagokion hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera-orrietan, izangaiek deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute. Deialdiaren iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira eskabideak, bai Herritarrentzako Udal Arreta Zerbitzuan (Euskal Herria plaza 1, Legazpi), bai Udal Egoitza Elektronikoaren Erregistro Elektroniko Orokorrean (www.legazpi.eus weborrian eskuragarri). Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak horretarako gaitutako erregistroetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta daudenen kasuan, egoitza elektronikoan aurkeztuko da eskabidea.

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuaren arabera egingo dira. Eredu hori Legazpiko Udaleko Erregistro Orokorrean (Herritarrentzako Arreta Bulegoa) emango da doan, eta eskuragarri egongo da Udalaren webgunean ere: http://www.legazpi.eus.

Udaleko alkatearen izenean bidaliko dira. Antzemandako okerrak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz eta/edo interesdunak hala eskatuta.

Izangaiek eskabidean emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua bat etorriko dira Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean aurreikusitakoarekin.

Ofizioz, honako eskakizun/informazio hauek egiaztatuko dira eta/edo espedientean txertatuko dira, betiere interesdunak berariaz baimena ematen badu parte hartzeko eskabidean:

— Nortasun-datuak egiaztatzea.

— Titulu ofizialak.

— Hizkuntza-eskakizunik altuena (euskara).

— Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) bidez gainditutako ikastaroen zerrenda.

Aurkeztu beharreko dokumentuak Legazpiko Udalaren esku daudenean, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, baldin eta noiz eta zein bulegotan entregatu ziren adierazten bada, eta dagokion prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Legazpiko Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruz, bai eta deialdi honen administrazio-izapideak egiteko eskatzen den beste edozein daturi buruz ere, horretarako inprimakietan adierazitakoaren arabera, betiere interesdunak eskabidean berariaz baimentzen badu; bestela, interesdunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du. Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzaren oinarria Pertsona Fisikoen Babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan zehazten da, bai eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan ere,

La participación en el proceso selectivo es voluntaria e implicará la prestación de consentimiento a realizar, en su caso, pruebas psicotécnicas, aceptando que el resultado de esas pruebas sea utilizado como un factor más de valoración, de conformidad con lo previsto en las presentes Bases.

Las personas candidatas de este proceso selectivo consentirán expresamente en la solicitud que sus datos de carácter personal sean tratados en la forma y al objeto señalado en estas bases.

Quinta. Instancias.

Las instancias solicitando tomar parte en el correspondiente proceso selectivo, en las que las personas aspirantes deberán manifestar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria, se presentarán, durante el plazo de 20 días hábiles contados a partir del siguiente a aquel en que aparezca la publicación del anuncio de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*, bien en el Servicio de Atención a la Ciudadanía municipal (Euskal Herria Plaza, 1, Legazpi), o bien en el Registro Electrónico General de la Sede Electrónica municipal (accesible a través de la página web, www.legazpi.eus) pudiéndose presentar igualmente en los registros habilitados a tal efecto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En el caso de obligados legales a relacionarse electrónicamente con la administración, la presentación se hará en Sede Electrónica.

Las solicitudes se ajustarán al modelo oficial y normalizado que será facilitado gratuitamente en el Registro General del Ayuntamiento de Legazpi (Servicio de Atención a la Ciudadanía), y que se encuentra disponible, así mismo, en la página web www.legazpi.eus.

Se dirigirán a la Alcaldía del Ayuntamiento. Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán subsanarse en cualquier momento, de oficio y/o a petición de la persona interesada.

Toda la información facilitada por las personas aspirantes en la solicitud será incluida en un fichero cuyo uso se limitará a la gestión del proceso selectivo. El uso y funcionamiento de este fichero se ajustará a las previsiones de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de carácter personal de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

De oficio se verificará y/o incorporará al expediente, siempre que la persona interesada lo autorice expresamente en su solicitud de participación los siguientes requisitos/información:

— Verificación de datos de identidad.

— Títulos oficiales.

— Perfil lingüístico más alto (euskera).

— Certificado de Cursos: Listado de cursos superados realizados a través del IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública).

Cuando los documentos que hay que presentar estuvieran en poder del Ayuntamiento de Legazpi, no será necesario volver a presentarlos, siempre y cuando se haga constar la fecha y la dependencia en la que fueron entregados, y que no haya transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan.

El Ayuntamiento de Legazpi, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como, cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente convocatoria, de acuerdo a lo señalado en los formularios al efecto, siempre que la persona interesada lo autorice expresamente en su solicitud, en caso contrario, la persona interesada deberá aportar la documentación correspondiente. El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 6 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo

EK\CV GAO-I-2024-07883

non herritarrek eskubidea dutela aitortzen baita, jada administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko, bai eta aplikatu beharreko gainerako legeria ere. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, betiere interesdunak (edo haren ordezkariak)parte hartzeko eskabidean berariaz baimentzen badu; bestela, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasun hori ezinezkoa bada, Legazpiko Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluan adierazitakoaren arabera, administrazioen betebeharra da lankidetzan aritzea datu-trukearen arloan, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.

Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

— Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia, datu-bitartekaritzako plataformaren bidez lortu ezin bada (unibertsitatekoak ez diren titulu ofizial batzuk).

— Eskatzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen euskara-ziurtagiri edo -tituluren baten fotokopia, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan erregistratuta ez badago, euskarako ariketa egitetik salbuetsita geratzeko.

— Alegatutako merezimenduen zerrenda, horiek egiaztatzeko behar diren dokumentuekin batera (kopia konpultsatuak), salbu eta aurretik adierazitakoaren arabera elkarreragingarria den datuak edo informazioa badira. Ezingo dira eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta justifikatu ez diren merezimenduak baloratu, ez ta, aipatu epe horren barruan alegatu arren, geroago justifikatzen direnak ere. Merezimenduak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta baloratuko dira, data hori izango baita eskatutako baldintzak betetzeko erreferentziazko eguna.

Izangaiek eskabidean adierazi beharko dute zein hizkuntzatan (euskaraz edo gaztelaniaz) egin nahi dituzten probak.

Era berean, euskarako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetara aurkeztu nahi duten izangaiek hala adierazi beharko dute eskabidean, eta ez da onartuko proba horietan parte hartzea, baldin eta ez badute halakorik adierazi eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Seigarrena. Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Alkate-udalburuak ebazpena emango du, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzeko. Ebazpen hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta udalaren iragarkioholean eta webgunean (www.legazpi.eus) jarriko da. Behin-behineko zerrendan, baztertutako izangai bakoitzari dagokionez, baztertzeko arrazoiak adieraziko dira, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko eta eskabidean dauden akatsak zuzentzeko, eta izangaiari ohartaraziko zaio, hala egiten ez badu, eskabidea beste izapiderik gabe artxibatuko dela.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda hori automatikoki behin betikotzat joko da. Erreklamaziorik badago, baietsi edo, hala badagokio, ezetsi egingo dira, behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpen berri batean. Ebazpen hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, ediktuoholean eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean.

a la protección de las personas físicas y en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, así como la demás legislación aplicable. Es por ello por lo que se dejarán de solicitar documentos o certificados que contengan datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada (o su representante) lo autorice expresamente en su solicitud de participación, en caso contrario, deberá aportar los datos o documentos correspondientes. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Ayuntamiento de Legazpi podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación. Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno de la Intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de éstas.

A la instancia deberá acompañarse:

— Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria, en caso de que no sea posible obtenerlo a través de plataforma de intermediación de datos (algunos títulos oficiales no universitarios).

— Fotocopia, en su caso, de alguno de los certificados o títulos de euskera que acrediten el perfil lingüístico exigido, cuando éste no se encuentre registrado en el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera, al objeto de quedar exento de la realización del ejercicio de euskera.

— Una relación de los méritos alegados acompañando los documentos suficientes acreditativos de los mismos (copias compulsadas), salvo que sean datos o información interoperable de acuerdo con lo señalado anteriormente. No podrán valorarse méritos distintos a los alegados y justificados dentro del plazo de presentación de instancias, ni aquellos otros que, alegados dentro de dicho plazo, sean justificados posteriormente. Los méritos se valorarán con referencia a la fecha del cierre del plazo de presentación de solicitudes, que asimismo será la fecha de referencia para el cumplimiento de los requisitos exigidos.

Las personas aspirantes deberán manifestar en su solicitud el idioma (euskera o castellano), en que desean realizar las pruebas.

Asimismo, aquellas personas aspirantes que deseen presentarse a las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos de euskera, deberán hacerlo constar en su instancia, no siendo admitida su participación en las mismas, si no lo hubieran hecho constar dentro del plazo de presentación de solicitudes.

Sexta. Admisión de las personas aspirantes.

Finalizado el plazo de presentación de instancias, la Alcaldía Presidencia dictará resolución aprobando la lista provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas. Dicha resolución será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y expuesta en el tablón de edictos y página web municipal (www.legazpi.eus). La relación provisional expresará, con referencia a cada una de las personas aspirantes excluidas, las causas que hubieran motivado su exclusión, concediendo un plazo de diez (10) días hábiles para formular reclamaciones y subsanar los defectos de que adoleciera la solicitud, con apercibimiento de que si no lo hace se archivará sin más trámites su solicitud.

Transcurrido el citado plazo, la lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentaran reclamaciones. Si las hubiere, serán estimadas o desestimadas en su caso, en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva, la cual se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de edictos y página web del Ayuntamiento.

Contra dicha resolución podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la lista de personas aspirantes admitidas y excluidas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, pudiendo interponerse de forma potestativa recurso de reposición previo en el plazo de un mes.

EK\CV GAO-I-2024-07883

Frogak egiteko egunean aurkeztutako errekurtsoa ebatzi ez bada, eragindako pertsonek probak egin ahal izango dituzte, baina proba horiek ez dute baliorik izango aipatutako errekurtsoa ezesten bada.

Zazpigarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.

1. Oposizio-lehiaketako probak eta merezimenduak zehaztu, garatu eta ebaluatzeko, eta parte-hartzaileak hautatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, honako arau hauetan xedatutakoari jarraituz: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikulua; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 4. artikulua; Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. eta 189. artikuluak; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.b) artikulua.

Epaimahai kalifikatzailea mahaiburu batek, hiru mahaikidek eta idazkari batek osatuko dute. Epaimahaikideetako bat IVAP-ek izendatuko du, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 22.4 eta 81.11 artikuluetan ezarritakoaren arabera. Era berean IVAPek proposatuta izendatutako pertsona bat epaimahai kalifikatzaileko kide izango da deialdian eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetan, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 189. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izenen zerrenda erakundearen iragarki-oholean eta web-orrian argitaratuko da, alkateak izendatu ondoren.

2. Epaimahai Kalifikatzailearen jarduna kide anitzeko organoen jardunerako arauen araberakoa izango da.

Epaimahai kalifikatzailea osatzen duten pertsonei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasotako abstentzio- eta errekusazio-kausak aplikatuko zaizkie. Epaimahaikideek dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte egindako zerbitzuengatik, bertaratzeengatik barne, horri buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

3. Epaimahai kalifikatzaileak egingo du hautaketa-sistema osatzen duten proben garapena eta ebaluazioa. Autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren erantzule izango da eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.

4. Epaimahai kalifikatzaileak aholkulariak erabili ahal izango ditu hautaketa-prozesuan jasotako proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoak egitera mugatuko dira. Aholkulari horien jarduna ere objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentzialtasun-printzipioen mende egongo da.

5. Epaimahai kalifikatzaileak beharrezko neurri guztiak hartuko ditu oposizio-fasean idatziz egin behar diren ariketak, eta epaimahaian irakurri behar ez direnak, izangaien nortasuna ezagutu gabe zuzenduko direla bermatzeko.

6. Epaimahai kalifikatzaileak hautaketa-sistema garatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzake oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, eta haien aplikazioan eta interpretazioan eta bere eginkizunak betetzeko sor daitezkeen gai guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak arau hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu, baita aurreikusi gabeko kasuetan egin beharrekoa ere.

7. Epaimahai Kalifikatzaileak ezin izango du deialdiko plaza kopurua baino izangai gehiago hautatu, eta muga hori hausten duten proposamen guztiak erabat deusezak izango dira.

Si en la fecha de celebración de las pruebas no se hubiera resuelto el recurso formulado, las personas afectadas podrán realizar las pruebas, si bien estas no tendrán validez en el caso de ser desestimado el mencionado recurso.

Séptima. Tribunal Calificador.

1. Al Objeto de la determinación, desarrollo y evaluación de las pruebas y méritos del concurso-oposición, y la selección de las personas participantes se constituirá un Tribunal Calificador, conforme a las previsiones del artículo 60 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, artículo 4 del Real Decreto 896/1991 del 7 de junio, artículo 81 y 189 de la Ley 11/2022 de 1 de diciembre de Empleo Público Vasco y el artículo 21.1.b) del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

El Tribunal Calificador estará integrado por un presidente/a, tres Vocales, y un secretario/a. Una de las personas integrantes del Tribunal será designada por el IVAP, en virtud de lo establecido al efecto en los arts. 22.4 y 81.11 de la Ley 11/2022 de 1 de diciembre de Empleo Público Vasco. A su vez, una persona, designada a propuesta del IVAP, formará parte del Tribunal Calificador en aquellas pruebas encaminadas a la acreditación de perfiles lingüísticos exigidos en la convocatoria, según establece el artículo 189 de la Ley 11/2022 de 1 de diciembre de Empleo Público Vasco.

La relación nominal de las personas titulares y suplentes que integran el Tribunal se publicará en el tablón de edictos y página web de la institución, previa su designación por la Alcaldía.

2. La actuación del Tribunal Calificador se regirá por las normas reguladoras del funcionamiento de los órganos colegiados.

A las personas que integren el Tribunal Calificador les serán de aplicación las causas de abstención y recusación recogidas, en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Las personas que formen parte del Tribunal percibirán las indemnizaciones por razón de servicio que correspondan, incluidas las de asistencias, de acuerdo con la normativa vigente al respecto.

3. El desarrollo y evaluación de las pruebas que integran el sistema selectivo corresponderá al Tribunal Calificador, que actuará con plena autonomía funcional, será responsable de la objetividad del procedimiento y garantizará el cumplimiento de las Bases de la convocatoria.

4. El Tribunal Calificador podrá disponer la incorporación a sus trabajos de personal asesor, para todas o algunas de las pruebas de las que conste el proceso selectivo, que se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas. La actuación de dichas asesoras y asesores se encontrará igualmente sometida a los principios de objetividad, imparcialidad y confidencialidad.

5. El Tribunal Calificador adoptará las medidas oportunas para garantizar que los ejercicios de la fase de oposición, que sean escritos y no deban ser leídos ante el Tribunal, sean corregidos sin que se conozca la identidad de las personas aspirantes.

6. El Tribunal Calificador podrá adoptar las medidas necesarias para el desarrollo del sistema selectivo en todo lo no previsto en las presentes bases, y resolver cuantas cuestiones se susciten relativas a su interpretación y aplicación, así como para el propio ejercicio de sus funciones. Igualmente, el Tribunal Calificador resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de estas normas, así como lo que se deba hacer en los casos no previstos.

7. El Tribunal Calificador no podrá seleccionar un número mayor de personas aspirantes que el de plazas convocadas, siendo nulas de pleno derecho todas las propuestas que infrinjan tal limitación.

EK\CV GAO-I-2024-07883

8. Epaimahai Kalifikatzaileak proben edo ariketen datak eta emaitzak argitara ematen dituen erabakiak erakundearen iragarki-oholean eta webgunean (www.legazpi.eus) argitaratuko dira.

9. Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Epaimahai kalifikatzaileak Legazpiko udaletxean izango du helbidea: Euskal Herria plaza, 1.

Zortzigarrena. Oposizioa.

Oposizioa proba hauek egitean datza:

1. Lehenengo proba, nahitaezkoa eta baztertzailea: ezagutza-proba. Test motako galdetegi bat idatziz erantzun beharko da.

Edukiak zehazteko, oinarri hauen I. eranskinean erantsitako gai-zerrendan jasotakoa hartuko da kontuan (Gai zerrenda orokorra eta espezifikoa, 40 gai).

Epaimahai kalifikatzaileak erabakiko du zenbat galdera egingo diren eta zenbat iraungo duen probak. Ariketaren hasieran emango da horren berri.

Test motako galdera-sortako galdera bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta bakarra izango da zuzena.

Proba hori 0tik 10 puntu bitartean baloratuko da, eta gutxienez 5 puntu lortzen ez dituztenak baztertu egingo dira automatikoki.

Hautaketa-sistemaren ordena egokia izan dadin, Epaimahai Kalifikatzaileak, kontuan hartuta eska daitekeen gutxienekoa eta proba horretan erakutsitako ezagutza-maila, eta izangaien nortasuna ezagutu aurretik, proba gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa ezartzeko puntuazio-atalasea erabaki ahal izango du, eta erabaki hori argitara emango du.

2. Bigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzailea: ezagutza-proba. Oinarri hauen I. eranskinean erantsitako gai espezifikoei buruzko kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira. Epaimahaiak erabakiko du zenbat kasu ebatziko diren, probak zenbat iraungo duen, eta abar. Ariketaren hasieran emango da horren berri.

Proba hori, gehienez ere, 25 punturekin kalifikatuko da, eta gainditzeko gutxienez 12,5 puntu lortu beharko dira.

Hautaketa-sistemaren ordena egokia izan dadin, Epaimahai Kalifikatzaileak, kontuan hartuta eska daitekeen gutxienekoa eta proba horretan erakutsitako ezagutza-maila, eta izangaien nortasuna ezagutu aurretik, proba gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa ezartzeko puntuazio-atalasea erabaki ahal izango du, eta erabaki hori argitara emango du.

Ariketa honen idatzizko proba egiteko, Epaimahaiak ezartzen dituen agiriak erabili ahal izango dituzte izangaiek (paperezko euskarrian bakarrik), baina inola ere ezingo dituzte erabili aipatutako agiriak, eskuliburuak, material bibliografiko, legedi-, jurisprudentzia- edo doktrina-errepertorioak, ez paperezko euskarrian, ez euskarri elektronikoan. Epaimahaiak azterketan erabiltzea onartuko duen dokumentazioaren xehetasuna ariketa egingo den datarekin batera argitaratuko da. Kasu praktikoak egiteko, gailu elektroniko guztiak baztertuko dira, kalkulagailua izan ezik.

Bigarren ariketaren balorazioan, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, laburtzeko eta aztertzeko gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna, bai eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna ere.

3. Hirugarren proba: borondatezkoa, ez-baztertzailea: konpetentzia-ariketa, izangaien gaitasunak ebaluatzera bideratua. Proba hori 0tik 5 puntu bitartean baloratuko da.

8. Los Acuerdos del Tribunal Calificador que hagan públicas fechas de realización de pruebas o ejercicios, así como sus resultados, se harán públicos en el tablón de edictos y página web de la institución (www.legazpi.eus).

9. A los efectos de comunicaciones y demás incidencias, el Tribunal Calificador tendrá su domicilio en el Ayuntamiento de Legazpi, sito en Euskal Herria Plaza, 1.

Octava. La oposición.

La oposición consistirá en la sucesiva celebración de las siguientes pruebas:

1. Primera prueba, de carácter obligatorio y eliminatorio, prueba de conocimientos que consistirá en contestar por escrito un cuestionario tipo test.

La determinación de los contenidos se realizará de acuerdo a lo recogido en el temario que se adjunta como anexo I de las presentes bases (Temario general y específico, 40 temas).

Queda a criterio del Tribunal Calificador la fijación del número de preguntas y la duración de la prueba, que se hará público al comienzo del ejercicio.

Cada una de las preguntas del cuestionario tipo test contará con cuatro alternativas de respuesta, de las que solo una de ellas será correcta.

Esta prueba se valorará de 0 a 10 puntos, procediéndose automáticamente a la exclusión de quienes no obtengan un mínimo de 5 puntos.

En aras al buen orden del sistema selectivo, el Tribunal Calificador, teniendo en cuenta el mínimo exigible, el nivel de conocimientos demostrado en esta prueba y antes de conocer la identidad de las personas aspirantes, podrá decidir el umbral de puntuación donde establecer la puntuación mínima necesaria para superar la misma, haciendo público dicho acuerdo.

2. Segunda prueba, de carácter obligatorio y eliminatorio, prueba de conocimientos que consistirá en resolver uno o varios supuestos prácticos en relación a lo comprendido en el Temario Específico de esta convocatoria, que se adjuntan en el anexo I. Queda a criterio del Tribunal la determinación del número de supuestos, duración de la prueba, etc. que se hará público al comienzo del ejercicio.

Este ejercicio se calificará sobre un máximo de 25 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 12,5 puntos para superarlo.

En aras al buen orden del sistema selectivo, el Tribunal Calificador, teniendo en cuenta el mínimo exigible, el nivel de conocimientos demostrado en esta prueba y antes de conocer la identidad de las personas aspirantes, podrá decidir el umbral de puntuación donde establecer la puntuación mínima necesaria para superar la misma, haciendo público dicho acuerdo.

Para la realización de la prueba escrita de este ejercicio las personas aspirantes podrán hacer uso de la documentación que el Tribunal establezca (exclusivamente en soporte papel), pero en ningún caso podrán hacer uso de aquellos documentos, manuales, material bibliográfico, repertorios de legislación, jurisprudencia o doctrinales comentados, tanto en soporte papel como electrónico. El detalle de la documentación que el tribunal permitirá utilizar será publicado junto con la fecha de realización del ejercicio. Para la realización de los supuestos prácticos, quedarán excluidos todo tipo de dispositivos electrónicos, a excepción de la calculadora.

En la valoración del segundo ejercicio, se tendrá en cuenta la exactitud de las respuestas, la capacidad de síntesis y análisis, la riqueza de las ideas desarrolladas, así como la claridad y corrección en la exposición de las mismas.

3. Tercera prueba: de carácter voluntario, no eliminatorio, ejercicio competencial, dirigida a la evaluación de las aptitudes de las personas aspirantes. Esta prueba se valorará de 0 a 5 puntos.

EK\CV GAO-I-2024-07883

Gaitasunak (jarrerak eta/edo gaitasunak) neurtzeko proba bat edo gehiago egingo dira, izangaiak lanpostura egokitzen diren baloratzeko. Gaitasun intelektualak eta bestelako gaitasunak neurtu ahal izango dira, bai eta jarrera- edo nortasun-gaitasunak ere.

Epaimahaiak lanpostuaren arabera egokitzat jotzen dituen tresna mota desberdinak erabili ahal izango dira (testa, talde-dinamikak, rol-probak...).

Ariketa honetan ebaluatuko diren funtsezko gaitasunak honako hauek izango dira:

1. Komunikatzeko gaitasuna eta enpatia.
2. Talde-espiritua eta negoziatzeko gaitasuna.
3. Zentzu pedagogikoa eta jakin-min intelektuala.
4. Azkar erantzuteko eta egokitzeko gaitasuna.
5. Interesa, iniziatiba eta sortzeko eta ekarpenak egiteko gaitasuna.
6. Bikaintasuna/konpromisoa lanaren kalitatearekin.
7. Antolaketarako ikuspegia.
8. Emaitzetarako orientazioa.

Azkenean ebaluatuko diren gaitasunak epaimahaiak zehaztu eta argitaratuko ditu, ariketa hori noiz egingo den zehaztuko duen informazio-oharrean.

Bederatzigarrena. Oposizioko ariketak egitea.

1. Hasiera.

Oposizio-faseko ariketak ezingo dira hasi harik eta deialdiaren iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta gutxienez hilabete igaro arte.

Oposizio-aldiko ariketa bakoitzean, behin ariketak zuzendu ondoren, eta izangaien nortasuna jakinarazi eta bakoitzaren kalifikazioa zehaztu aurretik, Epaimahaiak ariketa gainditzeko beharrezkoak izango diren gutxieneko puntuak lortzeko nahitaezko ezagutza-maila edo -atalasea ezarri ahal izango du.

Epaimahai kalifikatzaileak oinarri hauetan zehazten diren oposizioko ariketen hurrenkera aldatzeko ahalmena izango du.

2. Argitaratzea.

Oposizio-aldiko lehenengo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua Udaleko iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko dira, gutxienez zazpi egun baliodun lehenago. Epaimahaiak Udaletxeko iragarki-oholean eta Udalaren webgunean argitaratuko ditu oposizioko gainerako ariketak egiteko iragarkiak. Iragarki horiek, gutxienez, hurrengo ariketa egin baino 48 ordu lehenago argitaratu beharko dira.

3. Deialdia.

